

Musika eta dantza nagusi Rocioko Erromerian

Atzo ospatu zuten egun osoz erromeria Andatza plazan

Semblante Andaluz elkarteak antolatuta ospatu zen atzo Andatza plazan XVIII. Rocio-ko Erromeria.

Hainbat ekitaldi antolatut zituzten egun osorako. Haste-ko meza ospatu zuten Arantza-ko Amaren parrokian Semblante Rociero abesbatzarekin batera.

Meza amaitutakoan denak Andatza plazara hurbildu ziren, ekitaldiekin jarraitzeko. Herriko talde batek eman zion hasiera plazako ekitaldiei, Sentimiento taldeak. Ostean Oreretako Aljarafe abesbatzak hartu zuen lekukoa. Bildutako guztiekin oho-zerko ardoa hartu ondoren, Arrasateko Alegria de la Sierra taldearen emanaldia izan zen. Bazkaltzeko garaia iritsita, batzuk etxera joatea erabaki bazuten ere, asko izan ziren plazan bertan geratu zirenak. Hainbatek etxetik

eraman zuten janaria eta beste batzuk aldiz, bertan prestatzen ari ziren paellaz gozatzeko aukera izan zuten.

Bazkalduta eta gero Semblante Andaluz eta gonbidatutako elkarten ekitaldiak hasi ziren. Oreretako Concha Rociera abesbatzak hasi zuen arratsaldeko ekitaldien tanda. Andoingo Triana eta Zuena taldeak izan ziren jarraian. Irungo Embrujo Andaluz taldearen ostean, herrikoen txanda izan zen.

Arratsaldeari amaiera emateko, herriko Semblante Andaluz elkarte-ko hainbat taldek hartu zuten parte: Gitanillos, Zambra,, gazte zein heldu oholtzara gustura igo ziren.

Giro polita sortu zen Andatza plazan, adin guztietako jendea gerturatu zen eta dantzara animatu ziren ikusle moduan joandakoak ere. •



Hurbildutakoek ederki gozatu zuten erromeria, emanaldiak ikusten edo dantzan.



Talde bat izan da Italian ekainaren 5etik 10era atez-ateko bilketaren jaioterrian /4-5

KIROLA /6

Agustin Erkiziak Alberto Udaberi irabazi eta XXII. Squasheko Txapelketa Soziala lortu du



San Pedro Jaietako programa aurkeztu zuen Udalak ostiralean /3

MAITE

ESTETIKAKO ARETOA

Foto depilazioa argi pultsatzarekin

- Era guztietako depilazioak
- Aurpegiko tratamenduak
- Gorputzeko tratamenduak
- Makillajeak
- Beste hainbat zerbitzu

Uistin Kalea 2/g • Tel.: 943 370845 • Lasarte-Oria

BERTAKO FABRIKAZIOA

Solomoa baratxuritan-Baserri pateak
Odolkia- Solomo ontzutua
Ettxeko txorizoa Tripakiak- Saltxitxak

Txistorra Basurde burua

ADURIZ DE LASARTE S.A

Loidi Barren kalea 3 • Tel.: 943 361278 - 943 361655 - 943 362451
Lasarte-Oria



Generoa bertsogintzan

Neska-mutilei bertsolaritza irakasten aritzen dira Unai Muñoa eta Amaia Agirre ikastetxetan eta generoari buruz ari dira elkarri mokoka posta elektronikoz. Aurreko asteko hausnarketen jarraipena da hau. Datorren astelehenean gehiago.



Unai Muñoa Amaia Agirre

Saludos de corazón, morena

Eskertzen dinat hain goxo erantzutea, eta ni ere zintzoa eta gardena izaten saiatuko naun.

Estitxuk aipatzen duen motxila horren izateaz jabetu nindunan neu ere orain urte gutxi batzuk. Aurreko mailan, generoa norberaren karga dela esaten nintzanean, horretaz ari nindunan hain zuzen ere. Sekulako pisua duen karga, gainera. Zorionaren bizkarrezurra minberatzeraino. Zeren, gezurrak sinetsarazten zizkituten.

Lehenengo batean, kontzientziaren eta kontzientziaren arteko diferentziak aritu nindunan lagunekin. Kontzientzia, denok barruan omen dugun epaile hori zela esaten genin, eskolatik, etxetik, telebistatik, kaletik... jasotako etika eta balore batzuetan oinarritutako epailea. Bere polizia eta guzti. Ustez egin behar edo izan behar ez dugun hura kontzientziaren auzitara eraman, eta ondo zakinagu nola zigortu geure burua. Utzikeria eta pasotismoa zer dira ba? Edo depresioa? Kontzientzia, aldiz, egia jabetzea bezala ulertzen genin. Hau da, garenaren eta egiten dugunaren jabe eta ardura izatea, horrek suposatzen duen guztiarekin.

Generoaren gaiarekin lotuta, kontzientziaren subjektibotasunaren kontzientziatik arinduko gaituen aipaturiko motxila horren kargatik. Neska ala mutil izateak zertan baldintza-

tzen duen gure izatea determinantea delako nor izateko, eta bereziki, zorion orekatu batean surfeatzeko bizitzaren olatua, bere oztopo eta opari guztiekin.

Adibide praktikoetan. Azaltzeko oso luzea den arrazoi batzuegatik, duela hilabete batzuk bizilagun batek sekulakoak eta bi bota zizkidanan oso tonu agresiboan. Ni erabat txikitu nindunan, eta berak ongi baliatu zinan aukera nire gainetik jartzeko eta bere bestelako frustrazioak eta amorruak kanalizatzeko. Ni zapaldua izan nindunan, eta zer erakutsi digute gizonoi? Ausartak izan behar dugula, oldarkorak. Nork salbatu behar du ba printzesa? Adibide honetan, neska ala mutila izan, berez, nork bere lekutik duin defendatzea komenigarria izango zunan, baina, ni beldurtu egin nindunan, eta ondorioz neure burua zigortu, zetozen egunetan nire gizontxoari ahuldaderik ezin onartuta. Lasai, bizitzak jarriko zizkidan aukera gehiago eta hurrengo batean ez naun hainbeste txikituko, neure lekuan egoten saiatuko naun. Hori bai, bitartean hutsuneak izateko baimena emango zionat neure buruari, gizon oso izaki. Inoiz matxinatuko naun neure kontzientzia manipulatuen kontra. Afera honetan ere kartzelak apurtzea helburu. Nork bere kartzela.

Bidea ez du samurra, baina gratifikantea bai. •

Hik, saludos de corazón, eta nik hau galdetzen diat: zer moduz la salud del corazón?

Uda badator eta hi ere ez haiz biharunik sufritu gabea izango.

Logikoa bada, posible duk. Posible bada, izan daiteke. Izan edo gerta badaiteke, hobe duk prestatuta egotea. Zein erreza eta era berean zein zaila zaien agintea egiazat hartu dutenentzat. Ez al zaik iruditzen? Hiri gertatutakoa logikoa da? Posible zuan, baina zilegi? Agian hire bizilagun horrentzat bai. Hi isilik geratzeak egin zian bera indartsu. Botereak eman zioan arrazoi.

Gogoan diat hirekin kontzientziaren eta kontzientziaren inguruan hitz egin nuela. Ulertzen nian zer esan nahi huen, baina ba al dakik? Hitz berbera omen dituk, moxolo. Latineko conscienciatik zetorrek conciencia. Hire bereizketa, hala ere, primerakoa eta primeran iruditzen zaidak.

Balore batzuen arabera epaitzen diagu gure eta besteen jarrera bat egokia eta zuzena izan den. Balore horiek gure motxilan itsasten joan dituk, ados, baina gure ongizatea eta ondo sentitzea ere horren araberakoa izaten dituk ia beti.

Aurreko batean aitarekin hizketan aritu ninduan, eta erabat sentibera nengoen eguna izaki, negarrez bukatu nian. Errespeturik galdu gabe eta elkarri ahotsik altza gabe, baina ezin elkar ulertu. Mundua ikusteko modua ez zekiat hain ezberdina dugun, baina sentimendu, jarrera eta egoera bertsuei ez geniean modu berean deitzen. Aitak oso garbi zian kalte egin-

go zion arriskurik ez zuela hartuko. Damutzeari beldur ote dio? Nik gauzak neure kabuz ikusi eta esperimintatu nahi ditudala esan nioan, eta beste mila bider damutu behar izateak ez ninduela beldurtzen. Momentuko arriskuaren plazarak tiratzen ninduela esan nioan. Ez zian ulertzen gerora damutzeko arrisku handia egon arren nola egiten dudana aurrera.

Neure sentimenduei uko mila bider egin niezaiekan, baina ez zieat egin. Bestela, ez nindukek ni izango. Mila bider isildu nauk arrazoirik ez zutenen aurrean, eta damu nauk, eta damua mamu bihurtzen duk askotan. Ausartagoa izan nahi diat, baina horretarako kontzientzia ondo atondu behar diat lehenengo.

Horrelakoetan ez zekiat neska edo mutila izan alderik badagoen. Gizar-teak agintzen al du hori? Ez hadi inoiz kikildu, mutiko, gizontxo, motel, gizonkote! Hire hitza beti nabarmendu. Horregatik ote dira politiko, enpresari, ertzain eta militar ia guztiak gizontxoak? Emakumearen hitzak zer nolako pisua du? Zer nolako eragina? Boterea maskulinoa ote da? Harri-garria duk gaztelaniz "el" artikulua eta "la" artikulua zein hitzek duten ohartea. Harritzetik larritzerainokoa. Egin ezak aproba. Hori ere kasualitatea ote? Edo kausalitatea?

Bazekiat etxeko gizon eginda hagoela, eta etxerako lan hauek ere errez egingo dituk. Zaindu hadi! •

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea



GFAko Kultura eta
Euskara Departamendua



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Itakun Kultur Elkarte, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.700 • Erredakzioa: txintxarri@itakun.com • Publizitatea: publizitatea@itakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@itakun.com; itakun@itakun.com.

Txintxarri ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Jailetako programa aurkeztu du Udalak

Hamabi egun geratzen dira San Pedroetako jaiak hasteko eta lehengo ostiralean, programaren auzkezpena egin zuten Jesus Mari Zaballos Lasarte-Oriako alkateak, Marisa Zubiri Gazteria eta Festetako saileko lehendakariak, Xabier Goitia eta Rosa Illarremendi teknikariek.

Azaldu zuten bezala, festa egunetan dago berrikuntzarik handiena. "Herriarrek eta tabernariek urtetan eskatu duten aldaketa da, festek aste-burua izatea eta horrela egitea erabaki genuen," aipatu zuen alkateak.

"Adin guztierako festak izaten saiatu gara eta iazko aurrekontuarekin, gainera," azpimarratu zuen.

Aldaketak

Egun aldaketak ohiko programan eragina izan duela azaldu zuten. Esate baterako, heldu eta haurren danborradak.

Helduen danborrada San Pedro bezperako gauean atera beharrean, larunbata gauean ibiliko da herriko kaleetan zehar; haurren, berriz, igande goizean egingo da. "Igande goiza betetzeko eta aurreko urteetako beroa ekiditeko ordutegi aproposa iruditzen zitzaigun haurren danborradarako," esan zuen alkateak.

Beste aldaketetako bat, Maketa Lehiaketako kontzerturen ordua da. Azken bi urteetan jailetako amaiera kontzertua izan da, baina aurten arratsal-



Lasarte-Oriako Udalak San Pedro jailetako berrikuntzak eta aldaketak aurkeztu zituen ostiralean.

deko 20:00etan izango da.

Azkenik, txozna eremua ren aldaketa daukagu. Aurten herriko lanak direla eta, frontoi berri aurreko aparkalekuan egongo dira.

Horregatik, eremuko bizilagunei jailetako eragozpenak barkatzeko eskutitza bidali zaiela eta jai egun horietan, bertan aparkatzen dutenek osasun zentroko aparkalekua izango dutela jakinarazi zuen alkateak.

Berrikuntzak

Honetaz gain, ekintza batzuk

programaziotik kendu eta berriak txertatu dituztela azaldu zuten.

Txupinaren osteko maskleta edo asteleheneko goizeko bigantxen orde, zezen edo zaldi ikuskizuna eta paintball-a antolatu dituzte Atsokarreko eremuan.

Era berean, larunbata goizean ez da haurrentzako parke-rik egongo, "jaiei hasierari, txupinari garrantzia emateko era bat da," aipatu zuen alkateak.

"Gainera, azken urtea izango da, balkoi honetan txupina botatzen dena, hurrengo

urtean Okendo plazan udale-txe berriko balkoian egitea espero dugu," aurreratu zuen.

Kaleko ekintzak

Marisa Zubiri Gazteria eta Festetako lehendakariak aipatu zuenez, "kaleetan musika eta ekintza ugari egingo dira, herriarrek hala eskatuta."

Honela, egunean zehar, kale antzerkiak, Zo-Zongo kale ikuskizuna, mariatxien kalejira edo Oriako txaranga eta jaiei amaiera emateko, Mania Perukutoria musika eta piroteknia batzen dituen ikuskizuna.

Kontzertuak

Iaz bezala, Udalak antolatutako kontzertuak bi eremuetan banatuko dira, batetik helduentzako dantzaldiak Isla plazan eta gazteentzako kontzertuak Andatza Plazan.

Azpimarragarria da, aurten herriko hiru taldek kontzertua eskainiko dutela igande gauean, 22:00etan.

Herriarren partehartzea

Jaia praktikoa eta parte-hartzaileak izango direla adierazi zuten. "Herriko elkarteek parte hartu dute jaiak antolatzen. Ekintza parte hartzaile ugari dago gainera," aipatu zuen alkateak.

Marisak aipatu zuenez, "Ttakunekin batera, Sorgin dantzan haurren zortzikotea eratu eta hauen jantziak finantzatu ditugu."

Era berean, ekainaren 17an, kultur etxean irekiko den herriko etxe zaharren maketa erakusketa azpimarratu zuen. "Egun ez dauden eraikuntzak dira, gehien bat bertan egongo direnak," adierazi zuen.

Eta ezin ahaztu, Sendokik elkarteak San Pedro egunean antolatzen duen omenaldia.

"Aurten, Brigitar mojak dira omenduak. Normalean pertsona omentzen da, baina aurten instituzioa hau omentzea proposatu zuen Sendokik. Urte asko darama Brigitarren komentuak herrian eta elkarlana handia izan da Udalarekin," aipatu zuen alkateak. •

Ekitaldiz beteriko urteurrena ospatu zuten Alkoholiko Anonimoek

Alkoholiko Anonimoen elkarteak 75 urte betetzen ditu aurten. Nahiz eta Estatu Batuetan sortutako elkarte izan, mundu osora hedatu da eta gure herrian delegaritza bat ere badago.

Larunbatean ospatu zuten elkartearen urteurrena. Goizean, bilera irekia egon zen familia eta herriarrentzat Villa Mirentxun.

Honetan, Al-Anon elkarteak eta Aizpiri doktore psikiatrak elkartearen nondik norakoak jakin arazi zituzten bertan bildu ziren guztiei.

Ordu berean, gainera, Manuel Lekuona kultur etxean bilera itxia egin zuten elkarteak kideek.

Ostean, familiak eta AA

elkarteko kideek bazkaria izan zuten Araeta jatetxean.

Jaialdia

Eguneko ekitaldi nagusia, arratsaldean kulturetxean burutu zen jaialdia izan zen.

Jaialdiari hasiera Andoni Egaña bertsolariak eman zion. Jarrian, besteak beste, EPA-HHiko Lan eta Lan Beti Lan antzerki taldekoek, Emakumeen Zentro Zibikoko abesbatzak eta antzerki taldeak, Zero Sette eta Albokak hartu zuten parte.

Ekitaldiari amaiera emateko Alboka Abesbatzak, EZZko abesbatzak eta Zero Sette akordeoi orkestrak elkarlanean, *Coro de esclavos* lana eskaini zuten. •



Parte hartu zuten guztiek oroigarri bana jaso zuten.

Arg.: J. Zatarain.



Irudian Alboka, Zentro Zibikoko abesbatza eta Zero Sette.

Arg.: J. Zatarain.

MUSIKA ESKOLA

Kurtso amaierako kontzertuak bihar eta ostegunean

Lasarte-Oriako Udal Musika eskolako ikasturtea amaitzear dago. Horregatik, urte honetan zehar ikasitakoa erakutsiko dute bihar eta ostegunean, 19:00etan egingo diren kontzertuetan.

İnaki Landa irakaslearen dantza taldeek parte hartuko dute biharko kontzertuan. Horretaz gain, Txoko 3 eta Txoko 4 taldeetako ikasleek ekitaldia ikusi ahaliko da. Eskolako tresna desberdinak joaz trompetak, flautak, biolinak, pianojoleak, gitarrak...

Ostegunean, berriz, ikasturte honetan 2. maila gainditu duten ikasleek diploma banaketa izango da. Ondoren, txistua, flauta, trikitiak... entzungo dira eta bukatzeko, eskolako folk talde desberdinek ere parte hartuko dute. •

Erkizia txapelkun squashean

■ Agustin Erkizia eta Alberto Udabek jokatu zuten finala larunbatean

TXINTXARRI

Larunbat arratsaldean jokatu zen kiroldegian herriko XXII. Squasheko Txapelketa sozialaren finala. Berriro ere, iazko bikote berberak zuen jokoa txapela, Agustin Erkizia oriotarrak eta Alberto Udabe usurbildarrak.

Iaz Agustin Erkizia finala utzi behar izan zuen bi set jokatu ondoren, abduktorean min zuelako, baina aurten, ia ordu bete iraun zuen partidaren garaile suertatu zen eta txapela etxera eraman zuen 3-2ko emaitzarekin.

Lehen bi set-etan 10-15 eta 14-15 nagusitu zen Alberto Udabe, baina hurrengo hirurak Erkizia irabazi zituen 15-7, 15-8 eta 15-9ko puntuazioarekin.

Arratsalde horretan final nagusiaren aurretik, beste bi final ere jokatu ziren, Kontsolazioa eta 3. eta 4. postuak. Bi final hauek berriz, ez ziren hain borrokatuak izan, biak 3 set-etan erabaki ziren.

Kontsolazioko partida, Javier Serranok eta Oswal Cañedok jokatu behar bazuten ere, Oswalek ezin izan zuen etorri eta Jose Ramon Urruzolak jokatu zuen bere orde. Garaile Javier Serrano izan zen, 3-0eko emaitzarekin.

Hirugarren Iker Cañedo geratu zen eta laugarren berriz, Kinin Calvo. 3-0 irabazi zuen Cañedok. •



Udabe irabazten hasi bazen ere, Erkizia ederrekin eman zion buelta partidari.

Arg.: J. Zatarain.



Sariak banatzen Fernando Eskoriatza eta Martin Moreno zinegotziak aritu ziren.

Arg.: J. Zatarain.

Kirolerako oharak

Sporting-Kompac Txapelketa

Buruntz-Azpi elkarrekin ekainaren 20an, igandean, Sporting-Kompac txapelketa soziala ospatuko du Arkaleko kanpian. Elkartera jo behar da izena emateko.

Udako ikastaroak

Kirol Zerbitzuak jakin arazten du, heldu, zein umeentzako udako ikastaroetan izena emateko epea ekainaren 7an ireki zela. Informazio gehiago eskuratzeko edo izena emateko bi aukera daude, kiroldegiko bulegora hurbildu, goizeko 10:00ak eta 12:30ak artean edo 17:00etatik 19:00etara, arratsaldean; edo 943 376 182 zenbakira deitu.

Udal Igerilekua itxia

Igeri txapelketa dela eta, Udal igerilekua larunbatean, ekainaren 19an, 13:00arte itxita egongo da erabiltzaileentzako. Andoain, Usurbil edo Urnietako udaletako instalakuntzak erabili daitezke.

Jarduera berezia igerileku txikian

Ekainaren 20an, igandean, goizeko 10:00etik 11:00etara, Kiroldegiko igerileku txikia okupatuta egongo da haurtxoei egingo den igeri saio batentzat; igerileku handia erabiltzaileentzat libre egongo da.

Futbol eskolan izen emateko epea zabalik

Futbol-eskolako izena emateko epea zabalduko da ekainaren 14tik 25era. Izena emateko Ostadarreko bulegotik pasa behar da arratsaldetan, 19:00etatik 20:00ak bitartean.

Santa Ana Pala txapelketa martxan da

Astelehenetik ostegunera, 19:00etatik aurrera Michelin go fabrikako pilotaleku ondotik igarotzen diren herritarrek pala partidak ikusteko aukera dute. Santa Ana Pala txapelketako partidak dira hauek eta uztailearen 26a arte, hauetaz gozatu ahal da, eguraldiak laguntzen bada.

Aurten, 20 bikote dira finalerako bidea hasi dutenak eta iazko txapelkunaren ere, Iñigo Arluizaga eta Imanol Bardaji, lehian daude.

Lau taldeetan banatuta, bost bikote bakoitzean, maiatzaren 31ean hasi ziren eta uztailearen 8a arte jokatu dute lehengo fasea. Guztiak guztien aurka jokatu dute behin eta, hurrengo fasera, talde bakoitzeko bi bikote onenak izango dira.



Astelehenetik ostegunera, Santa Ana Pala txapelketako partidak jokatu dira.

Bigarren fasea eta finala

Orduan, sailkatuak bi taldeetan banatu eta hiru jardunaldietan finalerdietako bikoteak erabakiko dira, hauek taldeetako bi lehenak izango dira.

Lau bikote horiek finalerdia jokatu dituzte uztailearen 22an, osteguna eta azkenik, Santa Ana egunean, uztailearen 26an, 3. eta 4. postuak eta finala. •

LOKEko gimnastek Euskadiko Ligako txapelketan parte hartu zuten

Garazi Gomez eta Aizpea Arroyo LOKEko gimnastak Euskadiko Ligako Amateur txapelketan parte hartu zuten, lehengo asteburuan, ekainaren 5 eta 6an, Bilbon.

Jubenil mailan, Garazik borra eta xingolarekin lan egin zuen eta Aizpeak, berriz, kade-

teetan borra eta uztaiarekin.

Biek lortu zuten 3. postua tresna batean, Garazik borrekin eta Aizpeak uztaiarekin.

Tamalez, beste tresnan ez ziren ondo ibili eta sailkapen orokorrean, Garazik 11. postua eskuratu zuen eta Aizpeak zazpigarrena. •



Aizpea Arroyok zazpigarren postua eskuratu zuen txapelketan. Arg.: LOKE

Egunero

Erakusketa

MUNDU BAT, MILAKA AURPEGI, Aitzol Etxegoien lasarteoriataren argazki erakusketa. Jalgi kafe-antzokian, egun osoan zehar.



Ostirala, 18

Erakusketa

LASARTE-ORIAKO ETXE ZAHARREN MAKETEN ERAKUSKETA Patxi Altuna Iruretagoienaren eskutik hilaren amaiera arte. Manuel Lekuona kulturetxean, 18:00etatik 21:00etara.



Ikasturte amaierako bi kontzertu eskainiko ditu Musika Eskolak

MUSIKA ESKOLAKO IKASLEAK ikasturte amaierako emanaldia eskainiko dute. Urte guztian zehar ikasitako guztia familiko-ei, lagunei eta musika zale guztiei erakusteko garaia ikasturte amaiera izaten da. Horregatik, bi kontzertu eskainiko ditu Musika Eskolak aste honetan, asteartean eta ostegunean.

ASTEARTEA 15 ETA OSTEGUNA 17
KULTURETXEAN 19:00ETAN

Ipuin-kontalaria

IPUIN MUSIKALA eskainiko du Pasaia Musikal taldeak. Kulturetxean, 20:00etan.



Igandea, 20

Kontzertua

ALBOKA, ALBOKA TXIKI ETA TXE-PETXA abesbatzek emanaldia eskainiko dute Brigitarren komentua, 12:30ean San Pedro jaien egitarauaren barruan.

Ostirala, 25

Dantza

ERKETZ DANTZA TALDEAREN emanaldia San Pedro Jaien egitarauaren barruan. Manuel Lekuona kulturetxean, 22:00etan.

Kontzertua

OREINDIK (Funk, rock) eta LAUROBA (Pop rock) taldeen emanaldia. Jalgi kafe-antzokian, 23:00etan.



Asteazkena, 23

Dantza

SAN JOAN ZORTZIKOA dantzatuko da Udaletxe parean. Ondoren, Udaltzaina, Erketz EDTko dantzariak lagun dituela, Andatza plazarantz abiatuko da, eta, han, SOKA-DANTZA tradizionala dantzatuko dute. 22:00etan. SAN JOAN SUA piztuko dute plazan bertan.



Liburutegiko ordutegia

Astelehenetik ostiralera 10:00etatik 13:00era eta
17:00etatik 21:00era
Larunbatetan, 09:30etik 13:00etara

Manuel Lekuona kulturetxea • Geltoki kalea 18 • Tel.: 943 376181



Esazu irratiko programazioa

Ostiralero programa!

FMko 105,5 ean izango gaituzue
ostiralero 9:45etik 11:45era
Gurekin ondo pasatuko duzelakoan, ostiralera arte!

Oharrak

Loidi-Barreneko frontoiaren itxiera

Loidi-Barreneko frontoia eta padelaren bigarren faseko lanak direla eta, Tokiko Enplegu eta Egonkortasunerako Estatu Funtzariaren baitan daudenak, frontoia itxita egongo da datorren astelehenetik aurrera, ekainak 14. Exekuzio epea 3 hilabetekoa izango da. Alkatetzak barkamena eskatzen du lan hauek eragin ditzaketan eragozpenengatik.

Sorgin Dantzaren entseguak

Urtero bezala, Ttakunek San Pedro jaietan antolatzen duen Sorgin Dantzan parte hartzerko entseguak antolatuko dira ekainaren 8an hasita, astearte eta ostegunetan 20:00etan Landaberri Garaikoetxeako aterpean.

Sorgin Jaietako materiala

Sorgin jaietako materiala salgai, asteartero, ostegunero larunbatero Okendo parean,

Geltoki kalean. Zapiak dagoneko salgai daude.

Koadrilen jairako blusa egiteko tailerra

Koadrilen jaira bakoitza bere blusarekin joan behar du. Baina ez duenentzako Ttakunek kamiseta tintatzeko tailerra antolatuko du. Landaberri ikastolan ekainaren 17an egingo da arratsaldeko 15:30etik 17:00ak arte. Saso eta-Zumaburu ikastetxean berri, ekainaren 18an egingo da Sasoetako eraikinean 15:30etik 17:00ak arte. Hurrek kamiseta txuri bat besterik ez dute eraman behar.

Zabaletako jaietako zozketa

Zabaleta Auzolan elkarteak jaietan Goiegi jaietean zozketatzen zuen 4 pertsonentzako afaria 4779 zenbakiari egokitu zaio. Zenbakia duen pertsonak auzoko elkarteak kideekin harremanetan jartzea besterik ez du. Gainera, Zabaleta Auzolan elkarteak eske-

rrak eman nahi dizkiete auzoko jaietan parte hartu eta lagundu duten guztiei (borondatez lan eginez, diruz, antolatzen...).

Gasolina merkeago Aterpeko txartelarekin

Aterpeak, Lasarte-Oriako Merkatarien elkarteak kanpaina berri jarri zuen martxan asteartean. Hoentan, Oriako Allerru gasolindegian despositua bete eta Aterpeko txartelarekin ordaintzen duten herritarrek, %2ko beherapena izango dute haien ordainketan.

Calatayud-eko Harritzko monastegira txangoa

Maria Auxiliadora elkarteak kideek ekainaren 20ean txangoa antolatu dute Calatayud-eko Harritzko monastegira txangoa. Autobusa Txartel hoteletik aterako da goizeko 7:00etan. Prezioa 30 euro dira eta monastegirako sarrera ez dago barne. Informazio gehiago edo izena emateko, 943

363 675 edo 943 360 042 zenbakietara deitu behar du gauden 21:00tik 22:00etara.

Batxilergoko titulua

Lasarte-Oriako Institutuak jakin arazi nahi du 2009an ikasketak bukatu zutenek, batxilergo titulua jaso ditzaketela goizeko 9:00etatik 13:00ak bitartean. Norberak jaso behar du, bestela nortasun agiriaren fotokopiarekin jaso daiteke ere.

Udaltzainek jasotakoak

Udaltzainen bulegoak herriko bizilagunei jakinarazten die ondoko gauza hauek dauzkatala jasota, diru-zorroa, urrezko katea, zilarrezko zintzilikarioa, belarririk beltza eta doratua, betaurreko graduatuak, erloju digitala, urrezko aliantza, Jose Luis grabaketarekin eta bi baloi. Hauen jabeak direla egiaztatzen duten herritarrek, hilabeteko epean jaso behar dituzte. Horrela izan ezean, legeak ezarritako norakoa

emango diete.

Horietakoren bat ikuskatzeko interesaturik dauden pertsona guztiei arren eskatzen zaie Udaltzainen Bulegora hurbil daitezela, 09:00etatik 13:00etara.

Dagokionari

Hauxe duzu zure itzia eta nahi duzuna adierazteko atal aproposa. Bidali edo zuzenean ekarri TXINTXARRI aldiizkaria. Horretarako aukera desberdinak dituzu; telefonoz, 943 366858 zenbakira deituta, posta elektronikoz mezua txintxarri@txintxarri.info helbide elektronikora bidaliz edo bulegora ekariaz (Geltoki kalea 4).

Oharrak jartzeko:

Geltoki kalea 4
Tel.: 943 366858
txintxarri@txintxarri.info

Euskaraz aritzeko gogoia nagusi izan zen

■ Ostiral arratsaldean ospatu zen lehen aldiz Lasarte-Orian *Mintzodromoa*

TXINTXARRI

Ekitaldi honen helburu nagusia euskaraz aritzea zen eta ostiralean ederki bete zen helburu hori.

Ttakunek antolatzen duen Solaskide programaren barruan zegoen Mintzodromoa. Ikasturteari amaiera emateko ekitaldi aproposa aukeratu zuten, euskaraz aritzeko ekitaldia.

Solaskide programaren helburua euskara ikasten ari direnei euskaraz aritzeko aukera ematea da, erabilera sustatzeko eta ikasitakoa praktikan jaritzeko. Horretarako zer hobe taldean bildu eta gustura gai ezberdinetaz solasean aritzea baino. Ba hori izan zen ostiralean egin zutena Mintzodromoa hurbildutakoek.

Eguraldi kaxkarra zela medio, ezin izan zen Mintzodromoaren I. Edizioa kalean egin eta antolatzaileek Jalgi taberna barrura eraman behar izan zituzten mahaia eta bertan, giro onean burutu zen ekintza.

Magiaz beteriko aurkezpena

Magia eta euskara batu ziren ostiralean Jalgin egin zen

Mintzodromoan.

Hogeita hamar lagun inguru bildu ziren mahai ezberdinetan solasean. Baina aurretik, Porrotx pailazoaren magia ikuskizuna ikusi ahal izan zuten bertan zeuden guztiek. Gainera Mintzodromoaren amaieran Porrotxek antolatzaileen izenean eskerrak eman zizkien bertan parte hartu zuten guztiei eta programan jarraitzeko animatu zituen. Gainera opari bana eman zien, lrrien lagunak CD bana.

Eguneroko gaiak

Erreal, etxeko lanen banaketa, atez atekoa edo Lasarte-Oriako lanak izan ziren jorratu ziren gaietako batzuk. Euskara ikasten ari direnen zailtasunetako bat hori izaten da, egunerokotasunean euskaraz ezin aritu izana, horregatik aukeratu zituzten antolatzaileek pil-pilean dauden gaiak.

Afaria

Ohiturei hutsik egin gabe, ikasturteari eta Mintzodromoari amaiera Udaberri elkartean eginiko afari eder batekin eman zioten. •



Porrotxek magia saio batekin eman zion hasiera eta amaiera Mintzodromoaren I. Edizioari.



Afarian ere solasaldi ederrak egin zituzten.



Hogei minutu pasa orduko, beste mahai batera joan behar zuten parte hartzaileek, beste gai bati buruz solasean aritzeko.

Euskaraz
aritzeak
konfiantza
ematen die
bezeroei

Euskaraz
lan egiteak
motibazioa
pizten du

Euskaraz
negoio
hobeak egin
daitezke



bai
euskarari

ziurtagiriaren elkartea

902 43 00 26 / 05 59 25 50 41 baieuskarari.org

balioa eta berrikuntza

1.500 entitate baino gehiago ziur daude

10
urte